

MEMORIA ERAIKIZ

flores en el asfalto

MUGARIK GABE ERAKUNDEAK JASOTA, MUNDUKO HAINBAT LEKUTAN INDARKERIA MATXISTA
EGOERETATIK BIZIRIK ATERA DIREN 28 EMAKUMEREN BIZITZA-ISTORIOEI BURUZKO ANTZERKI-BIZIPENA.







Sinopsia

Memoria Eraikiz – Flores en el Asfalto ikuskizunak zentzumenak pizteko eta enpatia areagotzeko bidaia emozionala proposatzen du. Sentsibilizazioa sustatzeaz gain, indarkeria matxista gizartearen eta estatuaren erantzunkizuntzat hartzea du helburu.

Diziplina anitzeko instalazio artistikoa da, zeinetan dantzak, soinu-munduak eta argiztapenak esperientzia eraldatzailea bizitzera gonbidatzen duten publikoa.

Espazio ez-konbentzionaletara egokitutako antzerki-bizipena da; munduko hainbat lekutan indarkeria matxista pairatu eta bizirik atera diren 28 emakumeren bizitza-istorioetan oinarritua.

28 bizipen, 7 kontakizunetan, 28 ikuslerentzat...

Proiektuaren deskribapena

Memoria Eraikiz – Flores en el Asfalto proiektuaren barneko bertsioak 2018an Hortzmuga Teatroak Mugarik Gabe erakundearentzat sortutako kaleko proposamenean du jatorria. Hain zuzen, konpainiak diziplina anitzeko instalazio artistikoa sortu zuen Flores en el Asfalto ikerlanetik abiatuta. Hausnarketa-lan honek jatorri ezberdineko eta indarkeria matxista ezberdinetatik bizirik atera ziren 28 emakumeren testigantzak biltzen ditu.

Proposamen hau antzerki sozial bezala aurkezten du konpainiak; gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko tresna independente gisa, alegia. Formatu honen bitartez, parte-hartzaileei indarkeria matxista egoeretatik bizirik atera diren emakumeen kontakizunetara modu ezberdin batean hurbiltzeko aukera eskaintzen zaie. Hausnarketa helburu, funtsezkoa da gizarteak berak halako esperientziak bizi ditzan, eztabaida sozial irekia eta iraunkorra sortzeko gai izateko. Hortaz, ikuskizunaren formatuari eta eszenaratzeari esker, ikus-entzuleak bizi-pen indibidual eta, aldi berean, kolektibo batean murgiltzen dira. Honen bitartez, emakume protagonistek bizi izan dituzten ahulezia- eta tentsio-egoerak haien azalean bizi ahal izango dituzte.

Edukierari eta emanaldi bakoitzari dagokionez, 28 dira gehienezko parte-hartzaileak, haien bizipen eta kontakizunei esker jaiotako proiektu honetako 28 emakume horien omenez; entzun eta ikusarazi behar diren 28 ahots horien sinbolo gisa. Helburu nagusia gure gizartean ikuspegi kritikoa eraikitzea da, pertsonen arteko berdintasuna sustatu eta indarkeria matxista gaitzetsiko duen eraldaketa soziala eragitea, hain zuzen.

Proposamenak egunean 3 emanaldi egiteko aukera ematen du, betiere saio bakoitzaren aurretik espazioa behar bezala berreraikitze behar den denbora errespetatuz.

Hortzmuga Teatroa kaleko antzerki-konpainia da, 1989an Bilbon sortua. Hogeita hamar ekoizpenetik gora eta beste hamaika ekitaldi esanguratsu sortu ditu. Hori dela eta, euskal arte eszenikoen sare profesionalean erreferentziazko konpainia gisa finkatu da. Antzerkia, umorea, kritika soziala eta kalea erabiltzen ditu ikus-entzulegoa zirikatze eta hunkitzeko; era berean, konpainiak kontzientziak astintzea eta bizipen eraldatzaileak sortzea ditu abiapuntu.

Mugarik Gabe Garapenerako Lankidetzako Gobernu Kanpoko Euskal Erakundea da, 1987an Euskadin sortua. Herri ezberdinentzat eta emakume zein gizonentzat, mundu ekitatibo bateranzko aukera berriak sustatzea eta zabaltzea du helburu.



Fitxa artistikoa

Dantzaria:

Aiala Etxegarai

Koreografia:

Aiala Etxegarai y Raúl Cancelo

Eszena zuzendaritza:

Raúl Cancelo

Dramaturgia:

María Goiricelaya

Soinu-mundua:

Ibon Aguirre

Argiztapena:

Banesa Santos

Eszenografia eta atrezoa:

Iñaki Aguinaga y Javier García.

Jantziak:

Iban López

Bideoa eta irudiak:

Curruscu

Proiektuaren zuzendaritza:

Nerea Lorente

Idea eta sorkuntza:

Hortzmuga Teatroa

Ekoizpena

Mugarik Gabe

Harremanak / Banaketa:

Euskadi

Hortzmuga Teatroa

Alex Antúnez

Tel. +34 946 711 353

+34 697 894 074

info@hortzmuga.com

Mugarik Gabe

Joana Etxano

Tel. +34 944 154 307

joana@mugarikgabe.org

Estatua

**Escénicas Campoy, Laura
Campoy**

Tel. +34 605495357

info@escenicascampoy.com



Fitxa teknikoa

Formatua:

barnekoa edo espazio ez-konbentzionaletarako.

Iraupena:

35 minutu. Egunean 3 emanaldi eskaintzeko aukera.

Ikus-entzulegoa:

16 urtetik gora.

Beharrezko espazioa:

15 m x 15 m gardena eta oztoporik gabea, erabateko iluntasunarekin. Edozein zalantza edo/eta arazo izanez gero, konpainiari galdetu.

Muntaia:

3 ordu,

Desmontaje:

2 ordu.

Argindarra:

ohiko korronterako hargunea.

Kamerinoa komunarekin.

Aparkalekua:

ibilgailu batentzako plaza (7m luzera x 3m altuera) emanaldi-gunetik gertu.

Zamalanetarako

irisgarritasuna:

zamalanetarako, furgoneta nahitaez sartu behar da emanaldi-gunetik gertu dagoen lekuraino; beraz, oztoporik gabeko sarbidea eta irisgarritasun errazekoa eskatzen da.









23

MEMORIA ERAIKIZ

flores en el asfalto

